

AUTOMOZIO BEHATOKIA

V. BOLUMENA. 2020ko azaroaren 30a

IKUSPEGI GLOBALA

Ibilgailu arinen salmentak

- ❖ Salmenta globalak suspertzen hasi dira, baina urrira arte metatutako kopuruak aurreko urtekoaren azpitik jarraitzen du, % 17an
- ❖ Merkatuak urte arteko % 2,3ko hazkundea izan zuen urrian. Datu ona da kontuan hartzen badira industriaren egungo erronkak, baina emaitzak oso desberdinak dira eskualde batetik bestera:
 - **AEBetan** merkaturia hazi egin zen urrian (urte arteko % 1,3ko hazkundea) eta salmenta-tasak ez du aldaketarik izan irailetik. Badirudi floten salmentak suspertzen ari direla, baina urte arteko kopuruek balio negatiboetan jarraitzen dute. Inbentario-maila baxua izanik, arrazoi gutxi dago banatzaileek pizgarri onak eskainiko dituztela pentsatzeko
 - **Mendebaldeko Europan** jada ez dago udako susperraldiaren zantzurik; gobernuak hainbat pizgarri onartu dituen arren, salmenta-tasak espero baino apalagoak izan ziren urrian eta litekeena da azaroan okerrera egitea zertxobait
 - **Ekialdeko Europak** bere aldameneko eskualdearen gainetik jarraitzen du, bertako ekonomiek hazkunde handiagoa izan dutelako 2. hiruhilekoko maila minimoen ondoren. Matrikulazioak % 12,4 hazi dira urrian
 - Badirudi **Txinako merkatuaren** susperraldia indarra galtzen ari dela. Nahiz eta salmenta-tasek indartsu jarraitzen duten, ematen du bidaia-ibilgailu salmentak estankaturik daudela. Bestalde, ibilgailu komertzial arinen salmentek urte arteko ia % 13ko hazkundea metatu dute urtean, hiru arrazoi hauek bultzatuta: isurketa estandar zorrotzagoak, diesel kamioi zaharrak desegiteko pizgarriak eta merkataritza elektronikoko gorakorra
 - **Japoniako** merkaturia zitzu bizian ari da suspertzen, eta **Koreakoak** indartsu jarraitzen du, gobernuak oso azkar erantzun ziolako pandemiari eta aldi batez bertan behera utzi zituelako ibilgailu berrien erosketaren gaineko zergak

2020rako aurreikuspenak eskualdeka



Iturria: IHS Global Insight, Wards, China Passenger Car Association

- ❖ Hauek dira salmenta globalei buruzko iragarpenak:


	2020	2021	2022
Milioi uni.	75,77	84	89,6



Ibilgailu arinen ekoizpena

- ❖ Ekoizpen-lantegien aldi bateko itxierak eta eskaera txikiagoak berekin ekarri dute ibilgailu arinen munduko ekoizpena % 23 inguru murriztea irailera arteko urteko kopuru metatuan, baina oro har hileko ekoizpen-mailak Covid aurreko mailara itzuli dira

Hileko ekoizpen-maila 2020ko urtarileko ekoizpen-mailarekin alderatuta



Iturria: IHS Markit (forecast oct 2020)

- ❖ 2020ko laugarren hiru hilekoari dagokionez,
 - badirudi Txinak zertxobait okerrera egingo duela,
 - bien bitartean, Europan espero da ekoizpena are gehiago egonkortuko dela, inbentario-mailen murrizketaren ondoren,
 - antzeko zerbait gertatzen da Ipar Amerikan ere, non ekoizpen-mailak aurreko urtekoak baino apur bat baxuagoak izango baitira
- ❖ 2020 osoari begira, aurreikusten da ibilgailu arinen munduko ekoizpena urte arteko % 18-%19 jaitsiko dela

	2019	2020ko urt-ira	2020ko urr-abe	2020
Europe	21,1 M	~ % -30	% -3 - % -5	% -23 - % -24
North America	16,3 M	~ % -26	% -1 - % -3	% -20 - % -21
China	24,7 M	~ % -9	% -4 - % -6	% -7 - % -8
Worldwide	89,0 M	~ % -23	% -4 - % -6	% -18 - % -19

Iturria: IHS Markit eta Continental-en balioespenak


- ❖ Espero da datorren urtean, hots, 2021ean 84,3 milioiko guztizko bolumena izatea (2020an baino % 15 gehiago); kopuru horrek gaintitu egingo lituzke LMCK maiatzean edo IHSk uztaillean eginiko aurreikuspenak. Susperraldia motela izango da epe laburrean, hori dela eta, 2023ra arte ez dira erdietsiko 2019ko mailak. Epe luzeagora, azken aurreikuspenek diote urteko hazkunde konposatua % 4,9 ingurukoa izango dela 2027an



Ibilgailu elektrikoak


- ❖ LMC Automotive-n arabera, 2032rako munduan salduko diren bidaiarientzako autoen erdia elektrikoak izango dira (Ipar Amerikako light truck direlakoak barne) ^{1, 2}
 - Merkatuek eta eskualdeek abiadura desberdinetan egingo dute aurrera, eta espero da Europak eta, besteak beste, Txinak lideratuko dutela elektrifikazioa
 - Estatu Batuetako emaitzak, neurri handi batean, borondate politikoaren norabidearen arabera izango dira
 - Klima aldaketaren aurkako borrokari dagokionez, espero da BEV segmentua izango dela epealdi horretan azkarren haziko dena
 - Hibrido entxufagarriak gero eta garrantzitsuagoak izango dira epe ertainera, baina epe luzerako perspektibak mugatuagoak izan litezke, oraindik ez baitakigu nolakoa izango den CO₂-aren errendimendua erabileran eta nolako aurrerapen teknikoak egingo diren auto elektriko puruen segmentuan. Hori dela eta, PHEVak ez dira hain beharrezkoak, baina bai nahiko garestiak

Ibilgailu elektrifikatuen salmenten ikuspegi globala



- ❖ Ibilgailu elektrifikatu “indartsuen” (BEV eta PHEV) eskaera handitzen den hein berean handitu beharko litzateke baterien ekoizpen gaitasuna
 - Gaur egun, baterien mundu mailako ekoizpen gaitasuna 50 GWh baino gutxiagokoa da, baina gerta liteke hurrengo hamarkadaren lehen zatirako 1,4 TWh (TeraWatt orduko) behar izatea

Ibilgailu elektrifikatuetarako baterien eskaeraren perspektiba globala



¹ LMC Automotive. Electrification — Automotive Sector Impact Report. 2020/10/20 - [esteka](#)

² LMC Automotive. Global Light Vehicle Powertrain Briefing. 2020/10/8 - [esteka](#)



EUROPA

Ekoizpena

- ❖ COVID-19aren agerraldiak sortu duen egoerak ondorio ekonomiko masiboak sortzen jarraitzen du eskualde osoan, eta horrek eragin handia izan du ibilgailuen ekoizpenean
- ❖ EB osoko ekoizpen galerak 4.024.036 ibilgailukoak³ izan ziren 2020ko irailaren 30ean, hau da, EBk 2019an erregistratutako guztizko ekoizpenaren % 22,3koak⁴
- ❖ Frantziak jasan du aurtengo uzkurdua handiena (% -49,1) eta, ondorioz, EBko auto ekoizpenaren merkatuan zuen posizioa (hirugarrena) galdu du Txekiar Errepublikaren mesedetan⁵




European
Automobile
Manufacturers
Association

Salmentak

- ❖ Irailean lehen hazkundera erregistratu ondoren, EBko autoen merkatuak behera egin zuen urrian eta datu negatiboak erregistratu zituen berriro (% -7,8), Europako gobernu askok mugak ezarri zituztelako berriz koronabirusaren bigarren olatuari aurre egiteko⁶
 - Irlandak eta Errumaniak izan ezik, gainerako merkatu guztiek behera egin zuten, baita lau garrantzitsuenek ere
 - Eskaera nabarmen murriztu zen Espainian (% -21), aldiz, jaitsiera moderatuak erregistratu ziren Frantzian (% -9,5) eta Alemanian (% 3,6). Bestalde, Italian eskaerak ia ez zuen aldaketarik izan (% -0,2) 2019ko urriko mailekin alderatuta
- ❖ Urteko kopuru metatuari dagokionez, ibilgailu berrien matrikulazioak % 26,8 jaitsi ziren
 - EB osoan 8 milioi turismo inguru matrikulatu ziren urtariletik urrira; horrek esan nahi du jaitsiera 2,9 milioi unitate baino gehiagokoa izan dela aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta

Matrikulazio berrien hileroko bilakaera Europan



³ Zifra horrek bere baitan hartzen ditu sei tonarainoko turismoak eta ibilgailu komertzial arinak

⁴ ACEA. Interactive map: COVID-19 impact on EU automobile production, up until September 2020. 2020/10/20 - [esteka](#)

⁵ ACEA. Economic and Market Report. EU Automotive Industry First three quarters of 2020. November 2020 - [esteka](#)

⁶ ACEA. Statistics. Registration figures. Passenger cars registrations. 2020/11/18 - [esteka](#)



ESPAINIA

- ❖ Pandemiaren bilakaera negatiboak eta ondorio sozial eta ekonomikoen inguruko ziurgabetasunak berekin ekarri dute salmenten beherakada orokorra, are okerragoa izan zitekeena laguntza planik onartu ez balitz sektorearentzat



PRODUCCIÓN

- ❖ Urrian hautsi egin zen ekoizpenak azken bi hilabeteetan hartua zuen goranzko joera, eta % 1,7ko atzeraldia erregistratu zen, nagusiki Espainiako barne-merkatuak izan duen uzkurdua handiagatik.⁷ Biziki garrantzitsua da merkatua suspertzea Espainiako ekoizpena berraktibatzeke, Espainian saltzen diren lau autotik bat Espainian bertan ekoizten baita
- ❖ Urte osoari erreparatuz gero, elkarreak ez du aldatu 2020aren amaierarako espero den ekoizpen jaitsierari buruzko aurreikuspena: % 20-25 bitartekoa
- ❖ Bestalde, ibilgailuen esportazioak hirugarren hilabete positiboa izan du. Europako merkatuen bilakaerak hobera egin duenez, ibilgailuen esportazioak % 3,7ko hobekuntza izan du urrian



VENTAS

- ❖ Salmentak asko jaitsi dira urrian, ez bakarrik turismo eta lur orotariko ibilgailuen segmentuan (% -21), baizik eta baita ere ibilgailu industrialenean (% -28,2), eta horrek ondorioak izan ditu matrikulazioan⁸
 - Halere, ibilgailu elektrifikatu, hibrido eta gasezko ibilgailuen segmentuko salmentak (autoak, koadrizikloak, ibilgailu komertzial eta industrialak eta autobusak) % 40 hazi ziren urrian aurreko urtearekin alderatuta, eta guztira, 20.450 unitate saldu ziren
- ❖ Faconauto kezkatuta dago 2021aren hasierako bilakaerarekin, urtarrilaren 1etik aurrera isurketei buruzko WLTP protokolo berria aplikatuko delako eta, ondorioz, auto berri gehienek matrikulazio-zerga ordaindu beharko dutelako. Aurreikusten da arazo gehigarri bat izango dela eta merkatuaren susperraldia oztopatuko duela

	Urt-Ira		Ira		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	
Ekoizpena	1.537.231	% -27,7	262.589	% +12,2	265.504	% -1,7	% -20 -25
Matrikulazioak ⁹	595.435	% -38,3	70.729	% -13,5	74.228	% -21	853.000 (% -32)

- ❖ Industria, Merkataritza eta Turismo ministroak iragarri du gobernuak 10.000 milioi euro bideratuko dituela automozio sektorerara, hau da, Europako "Next Generation UE" funtsen % 14¹⁰
- ❖ Gainera, gobernuak 100 milioi euro banatuko ditu 60 enpresaren artean teknologia elektriko, bateria eta biltegitratze proiektuetarako. Hidrogenoarekin lotutako teknologiek ere izango dute laguntza programa bat¹¹
- ❖ Volkswagen Navarra-k eta sindikatuek adostu dute 2021eko lehen seihilekora luzatzea ABEEa. Konpainiak kalkulatu du 255.300 auto ekoiztiko direla 2021ean¹²

⁷ ANFAC. Prentsa oharra 2020/11/20 - [esteka](#)

⁸ ANFAC. Prentsa oharra. 2020/11/02 - [esteka](#)

⁹ FACONAUTO. Turismoen hileroko matrikulazioak. Hileroko merkatu-panela. 2020ko urria - [esteka](#)

¹⁰ Albistea. Expansión 2020/11/23 - [esteka](#)

¹¹ Albistea. CincoDías 2020/11/9 - [esteka](#)

¹² Albistea. CincoDías 2020/11/19 - [esteka](#)



ALEMANIA

- ❖ Autozioaren industria krisi sakon batean dago, krisi bat pandemiaren aurretik ere bazegoena eta mugikortasun elektrikoranzko trantsizioaren ondorio dena. Halere, urriko matrikulazio- eta ekoizpen-mailak hobetu egin dira irailarekin alderatuta, eta 2019ko urriko mailara hurbiltzen ari dira



PRODUCCIÓN



VENTAS

- ❖ 2020ko irailean 369.300 ibilgailu fabrikatu ziren, 2019ko irailean baino % 11 gutxiago. Ekoizpena hazi egin da urrian, 382.300 ibilgailura iristeraino, baina 2019ko urriko ekoizpena baino % 2 gutxiago da oraindik ere
- ❖ 2020ko urrian bidaiarientzako 274.303 ibilgailu matrikulatu ziren, 2019ko urrian baino % -3,6 gutxiago. Matrikulazio berriak honela banakatzen dira:
 - Gasolina % 42,1 (115.382 unitate, Δ 2019ko urria: % -29,8)
 - Diesela % 27,7 (71.370 unitate, Δ 2019ko urria: % -18,9)
 - Hibridoak % 22,9 (62.929 unitate, Δ 2019ko urria: % +138,5)
 - Elektroak % 8,4 (23.158 unitate, Δ 2019ko urria: % +361,5)
 - Gas likuatua eta gas naturala < % 1 (872 eta 566 unitate, Δ 2019ko urria: % 0,3 eta % 0,2)

13 14	Urt – Ira		Ira		Urr		2020 (aurreikuspena)	
	Uds	Δ (2019)	Uds	Δ (2019)	Uds	Δ (2019)	Uds	Δ (2019)
Ekoizpena	2.400.754	% -27,1	369.300	% -11,0	382.300	% -2	3,5 M	% -25,0
Matrikulazioak	2.041.831	% -12,9	265.227	% +8,4	274.303	% -3,6	2,85 M	% -21,0

- ❖ Reuters agentziaren arabera, Alemaniako gobernuak iragarri du 3.000 milioi euroko laguntza programa bat abiaraziko duela herrialdeko autozio industriari laguntzeko mugikortasun elektrikoranzko trantsizioan. Gobernuak teknologia arloko I+G-rako dirulaguntzak emango dizkie OEM garrantzitsueni (hala nola, Volkswagen, BMW eta Daimler), Bosch eta Continental bezalako Tier1 multzoko enpresei eta baita ere enpresa txikiagoei. Helburua da I+G sustatzea hainbat arlotan, besteak beste, hornikuntza kateen digitalizazioan, 3D inprimaketan eta ekoizpeneko datuen erabilpen partekatuan. Horrez gain, gobernuak kostuen % 60rainoko diru-laguntzak emango ditu enpresa handientzat, eta % 80rainokoak enpresa txiki eta ertainentzat, baldin eta beren ekoizpen instalazioak egokitzen badituzte adeitsuagoak izan daitezen ingurumenarekin
- ❖ Alemaniako Garraio Ministerioak asmoa du legeria bat prestatzeko, gidaririk gabeko ibilgailuek aukera izan dezaten kalean ibiltzeko
 - Legeria horri esker, enpresak horrelako ibilgailuak erabiltzen hasiko dira euren eguneroko funtzionamenduan eta ez soilik, orain bezala, probak egiteko. Ministerioak eginiko hasierako dokumentuak dio gidaririk gabeko ibilgailuak ongi definitutako eremu operatiboetan erabiliko direla lehendabizi
 - Baliteke horrelako ibilgailuak erabiltzea logistikan, langileentzako garraio zerbitzuetan edota pertsonak garraiatzeko zaharren egoitzetatik zentro medikoetara, eta alderantziz
 - Laneko dokumentuaren zirriborroak dio gaur egun ez dagoela ibilgailu autonomoentzako marko uniformerik Europan. Ondorioz, bere helburua da argi definitzea zeintzuk diren gaitasun autonomodun ibilgailuek bete beharreko baldintza teknikoak eta non ibili ahal izango duten
 - Zirriborro hori iritsi da Angela Merkel-ek iragarri ondoren Alemaniak “aitzindari” izan behar duela ibilgailu autonomoen arloan. Alemaniak espero du autonomia partziala duten autoak errepideetan ibiliko direla 2022tik aurrera

¹³ Autoen matrikulazioak urrian (KBA, 2020/11/04) – [enlace](#)

¹⁴ Ekoizpenaren datuak urrian (VDA, 2020/11/16) – [enlace](#)



- ❖ BMWk bere ekoizpen-lantegiak berregituratuko ditu 2024rako, eta Alemaniatik kanpora eramango du motorren ekoizpena, hala, etorkizunean, gasolina- eta diesel-motorrak Erresuma Batuko eta Austriako lantegietan fabrikatuko dira. BMWk München duen lantegia ibilgailu elektrikoetara bideratuko da, eta Municheko diesel edo konbustiozko motorren fabrikazio-lantegietako 1.400 langileak beste lantegi batzuetara joango dira¹⁵
- ❖ Daimler enpresak bateriadun kamioiak garatzen hasi nahi du kamioi arin eta ertainen kasuan eta erregai-piladun (hidrogenoa) kamioiak ibilgailu astunen kasuan. 2035erako 15.000 lanpostu inguru (guztira 30.000 dira) arriskuan egon litezke Daimler Trucks-ek Alemanian dauzkan lantegietan, Mercedes-en motor ekoizpenaren zati handi bat Txinan kokatuko litzatekeelako¹⁶
- ❖ ZF-k Eitorf hiriko (Nordrhein-Westfalen) motelgailu-lantegia itxi zuen azaroaren 12tik 15era, COVID-19 kasuak asko ugaritu zirelako. Lantegiko 700 langileetatik 91k positibo eman zuten, beraz, lantegira sar zitezkeen bakarrak izan ziren PCR testetan birritan emaitza negatiboa izan zutenak¹⁷
- ❖ Elring-Klinger eta Plastic Omnium (frantsesa) enpresak “Ekpo Fuel Cell Technologies” joint venture-a sortzen ari dira, erregai-pila handiak fabrikatzeko seriean. Helburua da % 10 eta % 15 bitarteko merkatu-kuota lortzea 2030erako, eta horrek esan nahi du 700-1.000 milioi euroko fakturazioa izango luketela. Teknologia hori ibilgailu komertzialetan inplementatuko da lehenik, eta gero ibilgailu partikularretan¹⁸
- ❖ Txinako SVOLT Energy Technology bateria-fabrikatzaileak baieztatu du 2.000 milioi eurorainoko inbertsioa egingo duela Alemanian, baterien moduluak eta paketeak fabrikatuko dituen lantegi bat eraikitzeko Saarbrücken udalerriko Heusweiler barrutian, eta baterientzako gelaxkak egiteko beste lantegi bat Saarland estatuan, Überherrn hiritik hurbil. Konpainiak espero du 2022aren erdialdean hasiko dela modulu eta paketeen ekoizpenarekin, eta 2023aren amaieran bateria-gelaxkenarekin. Bere zabalkundearen azken fasean, espero da bateria-gelaxken lantegiaren ekoizpen-gaitasuna 24 GWh-koa izango dela, urtean 300.000 eta 500.000 auto elektriko elikatzeke adinakoa
- ❖ Schaeffler enpresaren negozio-bolumena 2019an baino % 15,4 txikiagoa izan zen urtearen lehen erdian, eta alde hori % 2,6ra murriztu zen hirugarren hiruhilekoan, 2019arekin alderatuta. Hirugarren hiruhileko honetako hobekuntzaren arrazoi nagusia izan da Txinako merkatuak automotzioko produktuen eta aero-sorgailuentzako osagaien eskaera handia izan duela. Halere, Schaeffler enpresako kudeatzaileek diote balitekeela 4.400 lanpostu murriztu behar izatea (gehienak Alemanian), duela hainbat hilabete iragarri bezala¹⁹

¹⁵ BMWk diesel eta konbustiozko autoen ekoizpena murriztu du (Handelsblatt, 2020/11/18) – [esteka](#)

¹⁶ Daimler Trucks-ek lanpostuak murrizteko asmoa du (Handelsblatt, 2020/11/18) – [esteka](#)

¹⁷ ZFk lantegi bat itxi du aldi baterako (FAZ, 2020/11/16) – [esteka](#)

¹⁸ Joint venture berri bat erregai pilak fabrikatzeko (FAZ, 2020/10/29) – [esteka](#)

¹⁹ Schaeffler-ek ongi eutsi du hirugarren hiruhilekoan (Schaeffler, 2020/11/10) – [esteka](#)



FRANTZIA

- ❖ Azken hilabeteetako jardura eta Frantziako gobernuak industriari eman dion etengabeko laguntza gorabehera, aurreikuspenek diote 2020a urte pobrea izango dela, lehen seihilekoa oso ahula izan delako



PRODUCCIÓN

- ❖ INOVEVek emandako datuen arabera, ibilgailu arinen ekoizpena % 8,2 jaitsi zen Frantziako lantegietan, 144.094 unitateraino
- ❖ IHSMakit-ek aurreikusi du Frantziako ekoizpena % 39 murriztuko dela aurtan (1,75 milioitik 1,3 milioi unitatera), osasun krisiaren aurretik espero zen % 19ko jaitsiera baino gehiago



VENTAS

- ❖ Frantziako autoen merkatuak behera egin zuen berriz urrian, 171.049 unitate saldu zirelarik (urte arteko % -9,4)
- ❖ OEMen ikuspegitik, egoera heterogeneoa izan da
 - Marka nazionalen salmentak % 5,8 murriztu ziren aurreko urteko urriarekin alderatuta, eta merkatuaren % 60,3 berenganatu zuten
 - Opel izan zen ongien funtzionatu zuena, % 20 baino gehiago irabazi zuelarik, eta aldiz Toyota-k % 30etik gorako jaitsiera izan zuen

	Urt-Ira		Ira		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	
Ekoizpena ²⁰	940.277	% -42,0	144.094	% -8,2			1,3 milioi (% -39)
Matrikulazioak ²¹	1.166.699	% -28,9	168.290	% -3	171.049	% -9,5	% -22



INFORMACIÓN

- ❖ Renault-ek iragarri du Flins-en duen lantegia “mugikortasunaren arloko Europako ekonomia zirkularreko lantegi garrantzitsuen” bihurtuko dela, eta Re-Factory deituko da²²
 - Lantegiak Renault Zoe EV eta Nissan Micra supermini modeloak ekoizten ditu gaur egun
 - Eraldaketa hori 2021 eta 2024 bitartean gauzatuko da, sektore anitzetako bazkide-sare handi baten inplikazioarekin (startup-ak, bazkide akademikoak, talde handiak, tokiko agintariak, e.a.)
 - Lantegi berriak ekonomia zirkularraren osagai garrantzitsuenak barne hartuko ditu (hornikuntza, eko-diseinua, funtzionaltasunaren ekonomia, mantenimendua, berrerrabilpena, birmanufaktura eta birziklapena)
 - Flins eta Choisy-le-Roi hirietako langileak berriro trabatuko dira, asmoa delarik 2030ean 3.000 pertsonatik gora enplegatzea
- ❖ Plastic Omnium enpresak lider izan nahi du hidrogenoaren mugikortasun arloan, eta 3.000 milioiko diru-sarrerak erdietsi nahi ditu merkatu horretan 2030erako ²³
 - Helburu hori lortzeko, datozen urteetan 100 milioi euro inbertituko ditu urtero, dela zuzenean edo dela zeharka *EKPO Fuel Cell Technologies joint venture*-aren bidez, gaitasun industrialak garatzeko eskualde guztietan eta 2030erako 15 ekoizpen-ildo instalatuta izateko lantegi berrietan nahiz lehendik daudenetan
 - Halaber, Taldeak hidrogenoaren arloko *hub* garrantzitsu bat sortu nahi du Compiègne hiriko (Frantzia) α-Alphatech enpresaren I+G zentroan. 100 ingeniari inguru arduratuko dira 500 langileko taldeak indartzeaz, eta 30 milioi euro inguruko inbertsioak egingo dira laborategiko eta ikerketako ekipoak erosteko datozen bizpahiru urteetan

²⁰ Passenger cars + light trucks

²¹ CCFA. Prentsa oharra. CP 2020/09 - [esteka](#)

²² Albistea. Autocar. 2020/11/26 - [esteka](#) / Renault, prentsa oharra. 2020/11/25 - [esteka](#)

²³ Plastic Omnium. Prentsa oharra. 2020/11/25 - [esteka](#)



ITALIA

- ❖ Italiako autoen merkatua sendo agertu da berriz urrian, eta matrikulazioak 2019ko urrian erregistratutako ia maila berean kokatu ziren. Halere, badirudi gobernuaren pizgarrien efektua irailean agortu zela, eta sektoreko industriek uste dute neurri berriak aplikatu behar direla inbertsioak akuilatzeke eta merkatua berraktibatzeke



- ❖ ANFIAk jasotako datuen arabera, ibilgailuen ekoizpena % 36 hazi zen irailean. Ekoizpenaren % 57 esportaziora bideratzen da²⁴

PRODUCCIÓN



- ❖ Gobernuak aplikatutako pizgarriei esker, irailean turismoen eta lur orotariko ibilgailuen matrikulazioak % 10 igo ziren aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Halere, urrian, nola jada ez zegoen laguntzarik, portzentajea 2019ko urrian baino % 0,1 txikiagoa izan da²⁵

VENTAS

- ❖ 2020ko urtariletik urrira 1.123.469 turismo eta lur orotariko ibilgailu matrikulatu dira, hau da, aurreko urteko epealdi berean baino % 30,90 gutxiago²⁶

	Urt-lra		lra		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	
Ekoizpena		% -34,5		% +36			
Matrikulazioak	1.123.469	% -30,9	156.000	% +10,0	157.168	% -0,1	-700.000 uni



INFORMACIÓN

- ❖ FCAk eta PSAk iragarri dute zein izango den bi konpainiak batu ondoren sortuko den Stellantis talde berriaren (munduko laugarren auto marka handiena) logoa. Espero da fusio prozesua 2021eko lehen hiruhilekoan bukatuko dela²⁷
- ❖ FCAREN datuak hobetu egin dira: matrikulazioak % 17,42 hazi dira irailean 2019ko hilabete berarekin alderatuta, eta urrian hazkundea % 12,50ekoa izan da aurreko urtearekin alderatuta²⁸
- ❖ FCAk eta Engie Eps-ek (energiaren biltegitarte eta mugikortasun elektrikoaren merkatuko enpresa handienetako bat) memorandum bat sinatu dute sozietate berri bat sortzeko mugikortasun elektrikoaren arloan. Helburua da mugikortasun elektrikoaren garatzea birkarga puntuak eraikiz etxebizitzetan eta merkataritza guneetan²⁹
- ❖ Sace Simest-ek, finantza eta aseguruaren sektorean espezializatutako sozietate publikoak, 7.500 milioi euroko funtsak mobilizatu ditu urtearen lehen bederatzi hilabeteetan, automozio sektoreko enpresen sustapen eta babeserako ekimenak gauzatzeko (esportazio prozesuak, nazioartekotzea, likidezia eta inbertsio ekarpenak). Italiako sektoreko balio-kateak 5.500 enpresa barne hartzen ditu eta BPG nazionalaren % 6,2 ordezkatzen du³⁰

²⁴ Anfia, 2020ko azaroaren 10a, "Produzione autoveicoli Settembre 2020",

https://www.ansa.it/documents/1605033438174_CS_Produzione_autoveicoli_SETTEMBRE_2020_def.pdf

²⁵ Anfia, 2020ko azaroaren 10a, "Focus Italia Mercato Autovetture Ottobre 2020", https://www.anfia.it/data/portale-anfia/comunicazione_eventi/comunicati_stampa/2020/10.2020_-_Focus_Italia_Mercato_Autovetture.pdf

²⁶ Anfia, 2020ko azaroaren 10a, "Focus Italia Mercato Autovetture Ottobre 2020", https://www.anfia.it/data/portale-anfia/comunicazione_eventi/comunicati_stampa/2020/10.2020_-_Focus_Italia_Mercato_Autovetture.pdf

²⁷ Il Sole 24 Ore, 2020ko azaroaren 9a, "Fca e Psa, nuovo passo verso la fusione. Si alza il velo sul logo Stellantis", https://www.ilsole24ore.com/art/fca-e-psa-nuovo-passo-la-fusione-si-alza-velo-logo-stellantis-ADhYkG1?refresh_ce=1

²⁸ Unrae, 2020ko azaroaren 2a, "Immatricolazioni di autovetture per gruppi - Ottobre 2020", <http://www.unrae.it/dati-statistici/immatricolazioni/5191/immatricolazioni-di-autovetture-per-gruppi-ottobre-2020>

Unrae, 2020ko urriaren 1a, "Immatricolazioni di autovetture per gruppi - Settembre 2020", <http://www.unrae.it/dati-statistici/immatricolazioni/5162/immatricolazioni-di-autovetture-per-gruppi-settembre-2020>

²⁹ La Repubblica, 2020ko azaroaren 12a, "Fca-Engie Eps, maxi accordo per la mobilità elettrica",

https://www.repubblica.it/motori/sezioni/attualita/2020/11/12/news/fca_mobility-274073935/?ref=RHBT-VS-1270681073-P3-S1-T1

³⁰ La Repubblica, 2020ko azaroaren 12a, "Sace e l'automotive, aiuti per 7,5 miliardi",

https://www.repubblica.it/motori/sezioni/attualita/2020/11/12/news/sace_automotive_finanziamenti-274110601/



ERRESUMA BATUA

- ❖ Gobernu britainiarrak beste itxialdi bat iragarri zuen urriaren 31n, eta indarrean egon da azaroaren 5etik abenduaren 2ra. Halere, jarduera industrial ez da eten oraingoan, eta ibilgailu-fabrikatzaileek martxan mantendu dituzte euren ekoizpen-lineak



PRODUCCIÓN

- ❖ Ekoizpenak kolpe latza jasan zuen 2020ko lehen sei hilekoan, 381.357 unitate berri erregistratu baitziren, hots, aurreko urtean baino % 42,8 gutxiago SMMTren arabera (Society of Motor Manufacturers and Traders), eta 11.000 lanpostu galdu ziren ([SMMT](#))
- ❖ Hurrengo hilabeteetan, ekoizpenaren datuak hobetu egin dira lehen sei hilekoarekin alderatuta: 114.824 ibilgailu berri kontabilizatu dira irailean, eta 110.179 urrian, baina aurreko urteko hilabeteetako kopuruen azpitik jarraitzen dute, % 5 eta % 18,2 gutxiago, hurrenez hurren ([SMMT](#))



VENTAS

- ❖ Lehen sei hilekoko itxialdiak eragina izan zuen salmenten bilakaeran, eta 653.502 unitate saldu ziren, aurreko urtean baino % 48,5 gutxiago. Hala ere, salmentek hobera egin dute ekainetik aurrera. Urtarrila eta iraila bitartean metatutako zenbateko globalari dagokionez, portzentajea % 33,2 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Aipatzekoa da 2020ko salmenten % 33 baino gehiago irailean eta urrian egin direla ([SMMT](#))
- ❖ Espero da 2020ko salmentak iazkoak baino % 30 txikiagoak izango direla, eta pixkanaka suspertuz joango direla 2021aren erdialdera arte, Ford enpresaren Britainia Handiko kudeatzaile Andy Barratt-en arabera ([BBC](#))

	Urt-lra		lra		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uds	Δ (2019)	Uds	Δ (2019)	Uds	Δ (2019)	
Ekoizpena	632.824	% -35,9	114.824	% -5	110.179	% -18,2	870.000 (urtarrileko aurreikuspena baino 400.000 uni gutxiago)
Salmentak	1.243.656	% -33,2	328.041	% -4,4	140.945	% -1,6	-% 30 (BBC)



INFORMACIÓN

- ❖ Britainia Handiko gobernuak konbustiozko turismo berrien salmenta debekatu nahi du 2030etik aurrera, eta beste debeku bat jarriko du hibridoentzat (diesel/elektrikoa) 2035etik aurrera ([Financial Times](#)). Espainiak esportatzen dituen autoen % 11 Erresuma Batura bideratzen dira
- ❖ Britainia Handiko talde industrial handiek uste dute oso zaila izango dela Erresuma Batuak diesel eta gasolinazko ibilgailu berrien salmenta debekatzeko 2030erako ([BBC](#))
- ❖ Erresuma Batuko hainbat eskualde lehian ari dira auto elektrikoentzako baterien lantegi handi bat estatatzeko ([The Guardian](#))
- ❖ Brexit-aren negoziazioen azken errondetan sartzen ari garen honetan, Britainia Handiko automozio industriak 735 milioi liberako kostuei aurre egin beharko die ([SMMT](#))
- ❖ Nissan enpresak ohartarazi du zein izango den bere etorkizuna Erresuma Batuan ez bada akordioak lortzen Brexitaren inguruan ([BBC](#))
- ❖ Britainia Handiko erosleek uste dute 2035a goizegi dela ibilgailu elektrikora behin betiko pasatzeko, milaka milioi inbertitu badira ere ([SMMT](#))
- ❖ Bentley enpresak 2030erako guztiz elektriko bihurtzeko bere plana ezagutarazi du ([BBC](#))
- ❖ Mercedes-ek Aston Martin konpainian duen partaidetza handituko du % 20raino. Enpresa alemana konpainia britainiarraren kapitalaren % 5aren jabe da ([BBC](#))
- ❖ Arrival, furgoneta eta autobus elektrikoak egiten dituen startup-a (Erresuma Batuan du egoitza), Nasdaq burtsan kotizatzen hasiko da New Yorken, eta espero da erabaki horrek 4.000M€tik gorako balioa emango diola konpainiari ([The Guardian](#))
- ❖ Mahindra konpainia indiarrek BSA marka berpiztu du Erresuma Batuan motor elektrikoak fabrikatzeko ([Financial Times](#))



AMERIKA

AEBak

- ❖ COVID-19ak inpaktu handia izan du Estatu Batuetako automozioan, batik bat urtearen bigarren hiruhilekoan, zeinetan salmentak % 33,3 murriztu baitira. Aurreikuspenek diote 2020ko guztizko salmentak 12,6-14,4 milioi bitartekoak izango direla, hau da, % 15-26 bitarteko beherakada erregistratuko dela 2019ko 17 milioiekin alderatuta, eta [IHS Markit](#) agentziak dio ez direla itzuliko krisi aurreko mailetara 2025era arte
- ❖ Segmentuka, SUV, Pickup Truck eta luxuzko ibilgailuek izan dituzte emaitza onenak; aldiz, ibilgailu konpaktu eta ertainen eskaerak jaisten jarraitzen du. SUV motako autoak gero eta gehiago saltzen dira eta etengabeko hazkundera izan dute 2013tik, petrolioaren prezioaren jaitsierak lagunduta
- ❖ Ibilgailu elektrikoekiko interes globala gorabehera, [Alliance for Automotive Innovation](#) erakundearen arabera, segmentu horrek Estatu Batuetako guztizko salmenten % 2 bakarrik ordezkatzeko du, eta merkatu nazionalen Tesla da nagusi, salmenta guztien % 79,4rekin



PRODUCCIÓN



VENTAS

- ❖ Fabrikazio-lantegien apirileko itxieraren ondoriozko jaitsiera historikoaren ostean, Estatu Batuetako ibilgailu ekoizpena etengabe ari da hazten maiatzetik. Irailean 204.000tik gora unitate fabrikatu ziren, aurreko hilabetean baino % 3,9 gehiago eta 2019ko irailean baino % 3 gehiago
- ❖ Irailean YoY salmenten lehen igoera gertatu zen sei hilabetean (% +5,8). Aldiz, hazkundera aurreikusitakoa baino askoz txikiagoa izan da urrian, % 0,9koa, beraz badirudi 2020an sabaia jo dela. Kezkagarriak dira egoera ekonomikoa, langabezia eta COVID kasuen gorakadak eragindako ziurgabetasuna. Halere, Credit Suisse bankuak espero du 2021eko datuak positiboak izango direla, krisiak ez dielako hainbeste eragin ibilgailu berrien erosleei, zeintzuek batez besteko erosleek baino eros-ahalmen handiagoa baitute. Gainera, IHS Markit-en arabera, ibilgailuen eskaera sendo mantendu da ziurgabetasun ekonomikoaren erdian ere

	Urt-Ira		Ira		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	
Ekoizpena ³¹	1.390.439	% -37	204.471	% +3	209.117	% -1,7	
Salmentak ³²	10.311.222	% -18,9	1.340.551	% +5,8	1.345.372	% +0,9	12,6-14,3 milioi



INFORMACIÓN

- ❖ **Biden-en garaipenak ondorio zuzenak izango ditu sektorean.** Bere kanpainaren ardatzetako bat izan da ingurumenaren babesa, bai eta Obama-k ezarri eta Trump-ek indargabetu zituen **isurketen estandar zorrotzagoak** berreskuratzeko asmoa (% 3,5eko murrizketa 2017 eta 2021 artean eta % 5ekoa 2022 eta 2025 artean). Nahiz eta Kalifornia eta beste 12 estatuk badituzten estandar propioak, kalkulatu da murrizketa horiek urtean 1.000 milioi dolarreko aurrezkiekin suposatu zutela fabrikatzaileentzat, halere [bitan banatu zuten sektorea](#): Ford, Honda eta Volkswagen-ek estandar zorrotzagoak mantentzea adostu zuten Kaliforniarekin. General Motors, Toyota eta Fiat Chrysler-ek bat egin zuten Trump-ekin, baina Biden-en garaipenaren ostean adierazi dute bere ikuspegia errespetatuko dutela. Biden-ek jakinarazi du Obama-ren administrazioa baino urrunago iritsiko dela, 2026tik aurrera % 6rainoko murrizketak lortzeraino
- ❖ **Ibilgailu elektrikoa:** Biden-ek agindu du 400.000 milioi dolarretik gorako inbertsio publikoak egingo dituela energia garbietarantzko trantsizioa babesteko, eta inbertsio horien barruan orobat sartzen direla teknologia aurreratuko bateriak eta ibilgailu elektrikoak. Gainera, laguntzak emango ditu 500.000 karga puntu baino gehiago eraikitzeko 2030a baino lehen; hazkunde handia inondik ere, kontuan izanik une honetan 87.600 puntu bakarrik daudela Estatu Batuetan, Europako 192.000 puntuen aldean

³¹ <https://fred.stlouisfed.org/series/DAUPNSA>

³² <https://fred.stlouisfed.org/series/LTOTALNSA>



- ❖ **Pizgarriak emango zaizkio kontsumitzaileari ibilgailu elektrikoak erosteko** kreditu fiskalen bidez. Une honetan gobernu federala 7.500 dolarreko laguntza ematen ari da fabrikatzaile batek saltzen dituen lehenengo 200.000 ibilgailuentzat. Momentuz, Tesla eta GM bakarrik iritsi dira kupo hori betetzera, 2019an eta 2020an hurrenez hurren. Biden-ek adierazi du bere helburua dela kreditu horiek klase ertainari helaraztea, eta lehentasuna ematea *made in America* ibilgailuei. Hori arazotsua izan liteke Ford enpresarentzat, aurreikusi baitu bere ibilgailu elektriko asko Mexikon eta Kanadan fabrikatzea
 - Kaliforniak iragarri du pizgarri berriak emango dituela ibilgailu elektrikoak, hibridoak nahiz hibrido entxufagarriak erosteko plan erasokorrak babesteko. 5 kW/h-tik gorako bateria gaitasuna duen ibilgailu elektriko berri bat erosi edo alokatzen duten kaliforniar guztiak sar daitezke [California Clean Fuel Reward](#) izeneko programan. Bateriaren tamainaren arabera, jabe berriek 1.500 dolarrerainoko laguntzak eskuratu ditzakete
- ❖ **Txinarekiko gerra komertzialaren ondorioz**, asko murriztu da Estatu Batuetatik Txinara esportatzen den ibilgailu eta osagaien kopurua. Aurreikusten da Biden-en jarrera baketsuagoa eta multilateralagoa izango dela, herrialde aliatuen eta MMEn laguntzarekin
- ❖ Badirudi Biden-en presidentetza onuragarria izango dela **automozioako enpresa berritzaileentzat**. Aurreikuspenek diote ibilgailu elektrikoen salmentak 4 milioitik gorakoak izango direla Estatu Batuetan 2030ean. Deloitte agentziaren arabera, Txinak lider izaten jarraituko du, merkatu globalaren % 49arekin, atzetik egongo direlarik Europa % 27arekin eta Estatu Batuak % 14arekin. Biden-en garaipena izan liteke segmentu honek behar zuen bultzada
- ❖ Urrian, [GMk iragarri zuen hainbat inbertsio](#) egingo zituela Estatu Batuetan dituen lantegietan. Handiena izango da 2.000 milioi dolarrekoa, Tennessee-ko Spring Hill lantegia eraldatzera bideratuko dena eta helburutzat izango duena, egungo ICE ibilgailuekin batera, ekoizpen mistoa ostatatzea, hau da, ICE ibilgailuak eta ibilgailu elektrikoak
- ❖ [Ford enpresak 100 milioi](#) dolar inbertituko ditu Kansas City-ko mihiztadura lantegian e-Transit furgonetaren ekoizpena bultzatzeko



MEXIKO

- ❖ Graciela Márquez Ekonomia idazkariak baieztatu du automozio sektoreak lanean jarraituko duela, nahiz eta Chihuahuan eta beste hainbat estatutan semaforo epidemiologikoa gorri dagoen kutsaduren igoeragatik. Gobernuarentzat automozioa oinarritzko industria da, eta ez du geratuko fabrikazioa
- ❖ Urtearen hirugarren hiruhilekoan hainbat berrinbertsio berri iragarri dira, lau ibilgailu fabrikatzailek 2.010 milioi dolarreko inbertsioak egin baitituzte Mexikon dituzten lantegietan

Marka	Zenbatekoa (milioi dolar)	Lantegia	Produktua / Segmentua
Ford	1.000	Hermosillo, Sonora	Bronco / SUV
Volkswagen	600	Puebla, Puebla	Taos / SUV
Nissan	240	Aguascalientes, Aguascalientes	Sentra / Sedan konpaktua
Toyota	170	Apaseo el Grande, Guanajuato	Tacoma / Pickup



PRODUCCIÓN

- ❖ Ibilgailuen ekoizpenak % 8,8ko hazkundera izan zuen urrian 2019ko hilabete berarekin alderatuta
 - GM-k -zeina 2019ko abenduan Onix sedan modeloa ekoizten hasi zen San Luis Potosíko lantegian Latinoamerikako merkatuari begira- jakinarazi du bere urriko ekoizpen-bolumena % 45 hazi dela aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta
 - Ford enpresak 2019ko urrian adierazi zuen “zero ekoizpena” izan zuela programatutako geldialdien ondorioz; aldiz, aurtengo urrian bi modelo berriren 1.580 unitate mihiztatu ditu: Mach-E auto elektrikoa Cuautitlán hiriko lantegian (Mexiko Estatu) eta lur orotariko Bronco Sport autoa Hermosillo hiriko lantegian (Sonora Estatu)
 - Mazda-k inertzia positiboari eutsi dio CX-30 SUV berriaren ekoizpenari dagokionez; joan den urtearen amaieran hasi zen modelo hori fabrikatzen Salamanca hiriko (Guanajuato) lantegian, eta adierazi du eskaera handia izan dela, bai Mexikon eta baita ere Estatu Batuetan. Urrian, muntatzaile japoniarrak 14.920 unitate mihiztatu zituen, aurreko urteko kopuruaren (7.340) bikoitza
 - Toyota-k -lantegi berri bat abiarazi zuen urtarrilean Apaseo El Grande hirian (Guanajuato) % 15,6 handitu du bere ekoizpena urtearen hamargarren hilabetean
 - Mercedes-Benz-ek -zeina GLB SUV modeloa fabrikatzen hasi baita aurtan Nissan enpresarekin batera duen JV lantegi batean- jakinarazi du % 41,1 handitu duela bere ekoizpena urrian
 - BMW-k, duela urtebete eskas lantegi berri bat inauguratu duen San Luis Potosí hirian, iragarri du % 24,2 handitu duela bere produkzioa 2019ko urriarekin alderatuta (une hartan lau hilabete bakarrik zeramatzan martxan)
 - Audi enpresa Q5 SUV modeloaren bertsio berriak fabrikatzen hasi da Pueblako lantegian, eta % 8,9ko hazkundera izan du fabrikazioan; bien bitartean, SUV modelo berri bat ekoizten hasi da Volkswagen-en lantegian, fabrikazio bolumena % 9,4 handitu delarik urrian
- ❖ IHS Markit agentziaren arabera, ibilgailu arinen ekoizpena 3,00 milioi unitatera murriztuko da Mexikon 2020an. Ez dago itxaropenik 2019ko mailara itzultzeko (3,8 milioi unitate) 2026ra arte



VENTAS

- ❖ Ibilgailu berrien salmentak 80.000 unitateen langa gairitu du Mexikon. Audi, Volvo eta Peugeot enpresek adierazi dute euren salmentak handitu egin direla urrian; bien bitartean, Jac, Mazda eta Kia enpresak suspertze-prozesu azkar batean murgilduta daude
- ❖ 2020rako, IHS-ek aurreikusi du ibilgailu arinen salmentak 934.498 unitatera iritsiko direla (%-27)

	Urt-Urr		Ira		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	
Ekoizpena	2.465.439	% -25,03	301.426	% -5,48	347.829	% +8,79	% -28
Salmentak	748.501	% -29,55	77.784	% -22,79	84.307	% -21,28	% -27-35
Esportazioa	2.119.022	% -26,34	247.126	% -13,06	280.474	% +8,23	% -30

Iturriak: INEGI, Motordun Ibilgailu Banatzaileen Mexikoko Elkarte, Automozio Industriaren Mexikoko Elkarte, Auto zatien Industria Nazionala.



INFORMACIÓN

- ❖ Delta Tecnic-ek, ekoizpenean eta plastiko, kable, tinta, margo eta kosmetikarako kolore kontzentratuetan eta lehengaietan espezializatutako konpainiak, lantegi berri bat ireki du Querétaron (Mexiko); hemendik aurrera handik banatuko ditu bere produktuak Amerika osora, fokua automozioan jarritz³³
- ❖ MG Motors konpainia txinatarra ezagunak diren hiru modelorekin iritsi da Mexikora: ZS eta HS SUV modeloak eta MG 5 sedan modelo. MG-k dagoeneko baieztatu du bere produktu-sorta zabaltzea nahi duela beste modelo batzuekin (adibidez MG 3 eta MG 3), eta hiru eserleku-ilarako SUV modeloen, luxuzko autoen eta auto elektrikoaren segmentuetan ere sartu nahi duela. Markaren lehen sei banatzaileak Mexiko Hirian daude kokatuta. Halere, asmoa da urtearen amaierarako 17 banatzaile izatea: Jalisco, Veracruz, Tabasco, San Luis Potosí, Coahuila eta beste hiri garrantzitsu batzuetan ere bai³⁴
- ❖ Bimbo taldea ibilgailu komertzial elektrikoak fabrikatzen hasiko da bere Moldex enpresaren bitartez³⁵
- ❖ Audi enpresa Q5 modelo fabrikatzen hasiko da Pueblan duen lantegian. Muntaketa-enpresa alemanak aurreikusi du SUV konpaktuaren 130.000 unitateko ekoizpenarekin itxiko duela urtea; berriki eguneratu du modelo hori aurrealde berri batekin eta Mexikon manufakturatutako motor berri batekin³⁶
- ❖ Nissan-ek etekina atera nahi dio Mexikoko merkatuko pickup ertainen eskaerari, eta bere bertsio-sorta zabaltzen ari da off-road modelo batekin, aprobetxatuz bere pickup NP300 Frontier berria ekoizten hasi dela Morelosko lantegian³⁷
- ❖ Guanajato-ko automozio industriaren ekoizpena asko hazi da, eta lantegiak ere handitu egin dira, Latinoamerikako industria dinamikoenetako bat bihurtu delarik. 1992tik 2020ko martxora bitartean 19.800 milioi dolar inbertitu dira sektorean³⁸

³³ Expansión. <https://expansion.mx/empresas/2020/10/07/la-espanola-delta-tecnico-invierte-5-3-millones-en-dolares-en-queretaro>

³⁴ Industri arloko Klusterra <https://www.clusterindustrial.com.mx/noticia/2675/la-marca-china-mg-motors-llega-a-mexico-con-una-inversion-de-340-mdp>

³⁵ Expansión. <https://expansion.mx/empresas/2020/11/19/grupo-bimbo-vehiculos-electricos-disenados-por-filial>

³⁶ Expansión. <https://expansion.mx/empresas/2020/11/18/visita-a-planta-audi-arranca-la-produccion-del-renovado-q5-en-puebla>

³⁷ Expansión. <https://expansion.mx/empresas/2020/11/18/nissan-pickup-frontier-np300-planta-civac-version-off-road>

³⁸ El Universal. <https://www.eluniversal.com.mx/estados/sector-automotriz-en-guanajuato-el-mas-dinamico-de-al-afirman>



BRASIL

- Nahiz eta sektoreak hobera egin duen, kopuruak 2019ko epealdi berdinetakoak baino txikiagoak dira



PRODUCCIÓN

- Azken datuak urrikoak dira eta, datu horien arabera, ekoizpena irailekoa baino handiagoa izan da. Halere, % 18,5 murriztu da aurreko urteko urriarekin alderatuta. Enpresa muntatzaileek lehendik fabrikatutako ibilgailuen stock-a aprobetxatzen jarraitzen dute
- IHS Markit-ek aurreikusi du ibilgailu arinen ekoizpena 3 milioi unitatera iritsiko dela 2025ean Brasilen



VENTAS

- ANFAVEAk emandako datuen arabera, salmentak % 7,4 hazi dira irailean eta % 3,28 urrian aurreko hilabetearekin alderatuta. Halere, urte arteko jaitsierak % 11,1 eta % 14,9koak dira, hurrenez hurren
- Uste da salmentek % 28,3ko beherakada izango dutela urtearen amaierarako, nahiz eta hasierako aurreikuspenak % 40koak izan
- Esportazio-merkatu garrantzitsueneko (Argentina) krisi ekonomikoak eragin handia du ibilgailu arinen esportazioetan. Urte arteko jaitsiera % 17,7koa izan zen urrian

	Urt-lra		lra		Urr		2020 (aurreikuspena)
	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	Uni.	Δ (2019)	
Ekoizpena	1.258.132	% -41,46	208.773	% -11,0	223.759	% -18,5	
Matrikulazioak	1.301.659	% -24,45	199.165	% -11,1	205.699	% -14,9	1,91 milioi (% -28,3)

ibilgailu arinen ekoizpena eta matrikulazioa 2020an (auto + ibilgailu komertzial arinak). ANFAVEA



INFORMACIÓN

- Urriaren 28an, Jair Bolsonaro presidenteak pizgarri fiskalak automozio sektorerazabaltzeko legea onartu zuen, eta hemendik eta 2025era, lege hori onuragarria izango da Iparraldeko, Ipar-ekialdeko eta Erdigune-mendebaldeko eskualdeetako fabrikatzaileentzat. Lege horren arabera, enpresek inbertsio proiektu berriak aurkeztu ahal izango dituzte eta, horrela, IPI (Produktu Industrializatuen gaineko Zerga) ordaintzeko kreditu bat eskuratu³⁹
- Brasileko gobernuak iragarri du Adimen Artifizialean oinarritutako berrikuntza-sare nazional bat abiaraziko duela, tokiko enpresen ekoizpen gaitasuna eta lehiakortasuna hobetzeko. 70 milioi errealeko inbertsioarekin, neurri hori onuragarria izango da, besteak beste, automozio sektorearentzat⁴⁰
- PSCA-k iragarri du 26 milioi errealeko inbertsioa egingo duela eta lanpostuak sortuko dituela Pindamonhangaba hiriko lantegian. Enpresak lantegia erosi eta lantegiko ildoak ugaritu zituen⁴¹
- Caoa Group taldeak iragarri du datozen bost urteetan 1.500 milioi erreal inbertituko dituela Anápolis hiriko lantegian bi ekoizpen-ildo berri abiarazi eta 10 ibilgailu fabrikatzeko, besteak beste, Caoa Chery eta Hyundai modelo berri eta berrituak (dagoeneko han ekoizten dira) eta oraindik negoziatzen ari diren beste marka bat. Ekoizpen-gaitasuna 100.000 unitatetik gorakoa izango da urtean (gaur egun 86.000 unitatekoa da). Berriki onartu den pizgarri fiskal bati esker posible izango da Caoa taldeak Anápolis hiriko lantegian inbertitzea eta, gainera, beste 500 milioi erreal bideratzea Catalão hiriko HPE / Mitsubishi lantegira
- Azaroaren 24, 25 eta 26an ospatu da sektoreko lehen Sebrae kongresua, zeina online egin baita pandemiagatik
- Urrian Fiat izan zen Brasileko merkatuko liderra bigarren hilabetez jarraian, eta atzetik jarraitu diote Volkswagen-ek eta General Motors-ek⁴²

³⁹Notícia. Bolsonaro sanciona lei que prorroga incentivos fiscais para o setor automotivo. 2020/10/28 - [esteka](#)

⁴⁰Notícia. Brasil lança rede de Inteligência Artificial aplicada ao setor automotivo. 2020/11/05 - [esteka](#)

⁴¹Notícia. Vagas de emprego no setor automotivo: R\$26 milhões de investimento. 2020/11/12 - [esteka](#)

⁴²Notícia. Mercado segue em alta e Fiat se mantém na liderança. 2020/11/03 - [esteka](#)



ASIA

TXINA

- ❖ Urrian, Txinako automozio industriak ezaugarri hauek izan ditu:⁴³
 - Autoen, ibilgailu komertzialen eta energia berriko ibilgailuen ekoizpenak eta salmentek urte arteko hazkunde nabarmena izaten jarraitu dute
 - Handitu egin da marka txinatarretako bidaiarientzako autoen merkatu kuota
 - Murritzitu egin da enpresa talde garrantzitsuen merkatuko kontzentrazioa
 - Auto esportazioak hazi egin dira urte arteko terminoetan
 - Enpresa garrantzitsuen irabazi ekonomikoek hazten jarraitzen dute



PRODUCCIÓN

- ❖ **Ekoizpena hazi egin da zazpi hilabetez jarraian**⁴⁴
 - Auto ekoizpena 2,552 milioi unitatekoa izan da urrian; hala, % 0,9ko hilabete arteko hazkundea eta % 11,0ko urte arteko hazkundea erregistratu da
